

HERRITARREN PARTE-HARTZEA

AUZO-BILERA: Erdialdea

EGUNA: 2015/11/24

Saila	Laburpena
Alkatetza	Ego-gain kaleko bizilagun batek errekak tunel azpira sartzen denean ateratzen duen zaratarentzat konponbideren bat bilatzea eskatu du, ur-salto bat dagoelako eta horrek zarata ateratzen duelako.
Alkatetza	Bista Eder kaleko bizilagun batek trenaren gurpilek San Andres pasealekuaren paretik pasatzerakoan ateratzen duten zarata salatu du. Neurriak hartzea eskatu du. Gainera, dio, gauetan, makina batek zarata handia ateratzen duela.
Alkatetza	Plaza Barria kaleko 2an bizi den pertsona batek etxe parean dauden edukiontziak lekuz aldatzea eskatu du.
Alkatetza	Galdetzen du Errekaxuko hirigintza-plana gerarazi ondoren, auzorako sarbideren bat eraiki behar den Bidebarrietatik eskailera mekanikoak jarrita.
Alkatetza	Julian Etxeberria kaleko 3an dagoen kalezuloko hiru aparkalekuak kentzea eskatu du jendeak pixa egin ez dezan.
Alkatetza	Coliseoan ekitaldiren bat egiten den bakoitzean ateak lehenago zabaltzea eskatu dute.
Alkatetza	Errebaleko proiektuaren inguruko informazioa eskatu du.
Alkatetza	Toribio Etxebarria kaleko bizilagun batek kexa sartu du kaleetan musika jotzen ibiltzen direlako.
Alkatetza	Toribio Etxebarria kaleko terrazen ordutegia errespetaraztea eskatu dute.
Alkatetza	San Andres pasealekuko 3an uso larregi dagoelako pertsona batek kexa adierazi du.
Alkatetza	Julian Etxeberria kaleko Tas-Tas tabernak ixteko ordutegia ez duela betetzen salatu du.
Alkatetza	Pertsona batek esan du denda batzuk zabor normalen edukiontzietan botatzen dituztela hondakin organikoak.

HERRITARREN PARTE-HARTZEA

AUZO-BILERA: Erdialdea

EGUNA: 2015/11/24

Saila	Laburpena
Alkatetza	Pedalarari eman eta zabaltzen dire zabor organikoaren edukiontzia jartzea eskatu du, oraino ez direlako erosoak.
Obrak	Julian Etxeberria kaleko 3an dagoen etxarteko espaloia konpontzea eskatu du. Bizilagun horrek dioenez, espaloia zaharra da.
Obrak	Bista Eder aldean bizi den pertsona batek Fermin Calbetón kaletik irispide mekaniko bat jartzea eskatu du, Leo tabernaren ondotik alegia.
Obrak	Pertsona bat kexatu da Portalea aldean ibilgailuak ilara bitan egoten direlako aparkatuta. Kale hura zirkulazio-norantza bakarrekoa izatea eskatu du.
Obrak	Ego-gain kaleko 3an dagoen horma bat konpontzea eskatu du, etxea bota ondoren han geratu dena.
Udaltzaingoa	Gauetan Toribio Etxebarria kaleko Ez Dok tabernatik ateratzen den zarata salatu du, ateak zabalik uzten dituelako.
Udaltzaingoa	Papera biltzeko edukiontzien kanpoko aldean beti kartoiak egoten direla esan du, edukiontzia egon arren.
Udaltzaingoa	Jendeak pixa egiten duela Fermin Calbetón kaleko 6aren eskaileretan salatu du.
Udaltzaingoa	Untzaga plazan autobusen ordutegiak jartzea eskatu du.
Udaltzaingoa	DIA supermerkatuaren deskargetik Bista Eder kalean ateratzen duten zarata salatu du.
Udaltzaingoa	Bista Eder kaleko Boulevard tabernaren pareko espaloien zikintasunaz kexatu da. Eskatu du tabernako arduradunak garbitu dezala bere bezeroek zikintzen duten espaloia.

HERRITARREN PARTE-HARTZEA

AUZO-BILERA: Erdialdea

EGUNA: 2015/11/24

Saila	Laburpena
Udaltzaingoa	San Juan kaleko ezkerreko aldearen aparkalekuaz galdetu du, baita karga eta deskargarako jarriko diren lekuetaz ere.
Udaltzaingoa	Salatzen du kamioiak deskargatzera sartzen direla Egogain kaleko parkearen aldean.
Udaltzaingoa	Isasi kalean dagoen Xok tabernaren atea zabalik uzten dutenean, tabernako zaratak eta musikak auzoko jendeari ez diola lorik egiten uzten salatzen du.
Udaltzaingoa	Jendeak pixa egiten duela Errebalgo parkinaren horman salatu du.
Udaltzaingoa	Jendeak Ardantza aldean pixa egiten duela salatu du.
Udaltzaingoa	Jendeak Zezenbide kaleko 2an pixa egiten duela salatu du.
Udaltzaingoa	Zezenbide kalean grafitiak daudela salatu du.
Zerbitzuak	Errebaleko obrak hasten direnean, asteazkenetako azoka handik gertu jartzea eskatu du.
Zerbitzuak	Esan dute argi batzuk gaizki dabilzala Blas Etxebarria kalean eta Arragueta zaharrean.
Zerbitzuak	Kale-garbitzaileen txerbelekin domeka goizetan, 7:30etan, sortzen duten zarataz kexatu da. Beranduago hastea eskatu du.
Zerbitzuak	Bidebarrieta eta Julian Etxebarria kaleen kantoian dagoen lorategi txikia garbi eta zainduta izatea eskatu du.
Zerbitzuak	Untzaga kaleko eta Calbetón kaleko 4ko bizilagun batek hauxe azaldu du: dorrearen ondoan dauden eskaileretatik ura sartzen zaiela.